

## OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAREN EGITASMO BERRIA

*Eskolan jotzen ikas daitezkeen soinu-tresnen eskaintzari biolina gehitu zaio. Irakasle lanetan Arkaitz Miner biolin jole errenteriarra ariko da.*

Goiatz Labandibar  
(Aski Prexko. 2013/02/15)

**Biolina musika tresna ezezaguna iruditzen zaigu Euskal Herriko musika tradizionalan. Baina, antza denez, historian zehar ez da ezezaguna izan...**

Hala dirudi. Folkloristen ikerketek hala diote, badirela artxiobotan aipamenak, biolin joleak eta rabel joleak festetan izan zirela: Zuberoa aldean xirularekin eta ttuntunarekin elkartuta, Nafarroa aldean... Europako beste tresna bat zenez, Euskal Herriko herri musikan ere txertatu zen. Gertatzen dena da: bere lekua galdu zuela. Ez dakigu zehazki zergatik, nahiz eta imajina dezakegun.

**Pixkanaka berreskuratzen ari dela esan daiteke?**

Berreskuratzea asko esatea litzateke. Ezagutzen ditut pertsona batzuk jotzen dutenak eta bide horretan interesa dutenak. Erreferentzia batzuk badaude. Hor dago Mikel Urbeltz, biolinarekin hiru-bat diska badituena. Oskorrik ere erabili izan du bere grabaketetan. Folk taldeetan erabili izan da. Hor dago interesa, badaude pertsona batzuk, baina ez nuke erreku-peratzen ari denik esango.

**Pertsona horien artean baten bat hartuko zenuke erreferentzetzat?**

Ez nintzateke ausartuko... Akaso Mikel Urbeltz izan da disko batean biolina tradizioz nola erabiltzen zen kontuan hartuta lider jarri duena. Norbera bere kabuz ari da bidea egiten, nahiz eta elkar ezagutzen dugun.

**Eta zu, nola iritsi zinen mundu honetara?**

Biolina kontserbatorioan ikasten nuen eta gitarra ere jotzen nuen. Trikititxa taldeetan-eta ibiltzen nintzen. Gero, Tapia eta Leturiarekin jotzen hasi nintzen eta haiekin ezagutu nuen erromeriako erreporterioa: dantza erreperitorioa, herri musikaren ikuspegi... Bai bertakoa eta kanpokoa, folk



Arkaitz Miner: "Biolina etxetik kalera ateratzeko pausoa ematea da helburua". G. Labandibar

jaialdietan. Haietan erreferentzia ikaragarriak ikusi nituen. Badaude jaialdiak biolin herrikoiairen inguruan eta herrialde bakoitzak badu bere esperientzia. Erreperitorio hori landuz konturatu nintzen biolinarekin dantza musika jo daitekeenaz eta polita gelditzen denaz.

**Herri Musika Eskolan biolina irakasten hasiko zarete. Zergatik orain eta hemen?**

Nik Azkainen ematen ditut biolin eskolak, euskal dantzen erreperitorioarekin lotuta. Han, hizkuntza bat garatzen joan naiz. Hemen inguruan, Gipuzkoan nonbait erakustekotan, toki paregabea da hau, biolina testuinguru honetan aurkezteko. Juan Marirekin (Beltran) hitz egin nuen eta asko gustatu zitzaion ideia.

**Eskoletan erabiliko den metodologia zein izango da?**

Ez dago adin aldetik baldintzarik. Metodologia kontserbatoriotik ezberdina izango da. Nahiz eta partiturak ere erabiliko ditugun, gehien bat beldurriz landuko ditugu gauzak, norberak bere bidea hartzeko eta bere erreferentziatik ikasteko. Ostiral arratsaldetan izango dira eskolak.

**Biolina era klasikoan jotzen dakienak abantaila izango du, noski.**

Zalantzarik gabe, alde teknikoa dagoeneko menperatua luke. Horrelako norbaitekin zuzenean herri musikako lengoia sartuko ginateke, teknikan sartu gabe.

**Eta biolina lortzea eskoletarako, arazo bat izan liteke?**

Gaur egun, ez. Txinako merkatuak ikaragarri merkatu ditu musika tresna guztiak. Lehen gutxienez 500 euro ordaindu behar ziren biolin txar batengatik. Gaur egun, jotzen ikasteko oso merke lor daiteke biolin bat.

**Zure esperientzia pertsonaletik begiratuta, zergatik animatuko zenuke jendea biolina ikastera?**

Bizitza guztia kontatu beharko nuke eman didana azaltzeko, baina asmoa musika era konpartitu batean jotzea da, testuinguru ezberdinetan jo ahal izateko, gure eguneroko bizitzan. Izan daiteke tabernan, edo festa batean... Ez bakarrik etxean, ikasten ari zarenean. Biolina etxetik kalera ateratzeko pausoa ematea da helburua. Musika tresna hau modu bizi batean aurkeztu nahi dugu.

# KONTZERTUAK SOINUENEAN

## Udaberriko kontzertua

**SARRERA  
5 EURO**

2013ko apirilaren 13an - 18:30tan

**JUAN ARRIOLA  
eta ARKAITZ MINER**

**Hariari Tiraka**

Biolinarena izan da azken mendean gure herri musikaren ondaretik galdu dugun hotsetako bat; biolina izan baita, dokumentu zaharretan ikus dezakegunez, XVI. mendetik XX. mende hasiera arte euskal herri musikaren modu nabarmenean erabili izan diren soinu-tresnetako bat.

Aurkitutako dokumentazio zaharrean 1507tik XX. mende hasiera arte Euskal Herriaren eskualde guztietan ikus dezakegu biolin motako soinu-joleen presentzia. *Violin, rabel, arrabita, xirribita, rabet...* eta antzeko izendapenekin ageri dira eta askotan aipatutako hori arrabita-rabel zaharra edo biolina den jakitea zaila bada ere, ziur gaude *ministril, juglar*, eskale edo itsua izanik, batzuetan bakarka, besteetan perkusionistekin edo danbolinteroekin taldea osatuz, erresonantzi kaxa duten igurtzitako soken hotsek ehunka urtetan lagundu dituztela gure herrietako mota askotako festa eta ospakizunak.

Gure artean entzun ditugun herri biolin-joleen arteak azkenetako batzuk dira XX. mende hasieran Bizkaiko erromerietan jotzen zutenak, Hernani eta Lasarteko plazan jaiero jotzen zutenak, Iparraldeko herri dantzatarako jotzen zutenak eta gaur egun arte Euskal Herriko herri askotako errondailetan jo dutenak.

Badugu gure artean funtzionatu duen beste biolin talde mota bat. XIX. mende bukaeratik 1950 hamarkada arte Nafarroako dultzainero asko biolin jole-

ak ere baziren eta horietako batzuk herrietako festetara jotzera joaten zirenean bi modutan aritzen ziren; egunez bi dultzaineroz eta danbor jole batez osatutako taldean, eta gauez, bi biolin eta gitarra hartuta, tabernaz taberna jotzen ibiltzen ziren gure herri musikaren beste hots-estilo bat eskainiz.

Azken formatu horren antzekoa da Juan Arriolak eta Arkaitz Minerrek aurkeztu dutena. Badirudi halako biolin bikote zahar horiei lekukoa hartu eta aurretik egindako bideari jarrai-

pena eman nahi diotela. Horrela, gure atzoko eta gaurko ondare musikal zabala arakatu ondoren egindako aukeraketa bikaina biolinaren soken hots ederrez eskaintzen digute.

Aurkituko al dugu galdutako hots eder hori? Berreskuratuko eta berpiztuko al da euskal herri biolina? Halako musikarien esku trebeetan guzti hori ondo bideratua dago. Helburu zirrargarria eta erronka liluragarria eskarmentu handiko bi biolin jole aparta hauek hartu dutena eta oraingo honetan gure artera ekarriko dutena.



**HAURRENTZAT  
eta GURASOENTZAT  
KONTZERTU DIDAKTIKOA**

JUAN ARRIOLA  
ETA ARKAITZ MINER  
Hariari Tiraka

Lekua: Soinuenea  
Ergoien auzoa  
20180 Oiartzun

Eguna: 2013-04-13  
Ordua: 11:30  
Iraupena: 30 minutu



# JAMBRINA Y MADRID

## Arbolito Florido

Alberto Jambrina eta Pablo Madrid herri musika egiten duen bikotea musikari folklorista hauek 1980ko hamarkadatik egin duten elkarlanetik sortu da.

Biak Zamorako herri musikaren ikerketan, zabalitzean eta interpretazioan aitzindariak izanik, Zamoran egin dituzten zenbait zuzeneko grabaketetan eta beraien grabaketa propioetan Kultura Ministerioaren babesa jaso izan dute.

*Colectivo de Folklore Zamorano* bilguneko partaideak izan ziren. 1989tik Folklore Eskolako (*Escuela de Folklore*) eta Musika Sustapenerako Partzuegoko (*Consorcio de Fomento Musical*) buru dira hurrenez hurren.

Herri dantzako eta folkeko hainbat taldetan ibiliak dira, tartean: *Voces de la Tierra*, *Bajo Duero*, *Habas Verdes*, *Tradinova*. Horretaz gain, *La Bazanca*, *Radio Tarifa*, *María Salgado*, *Joaquín Díaz* eta *Vanesa Muela* bezalako talde eta musikarien grabaketetan lagundu dute.

Espainiatik kanpora, munduan zehar banatuta dauden lekuetan ibili dira herri musikako jaialdi entzutetsuetan, tartean: Portugal, Italia, Ingalaterra eta Kuban.

Beraien emanaldietan lehenago gizabanakoen memoriatik berreskuratu den memoria kolektibaren oraina gerturatzen saiatzen dira. Zahagidun gaita, dultzaina, txirula eta danbolina, zarrabetea, arrabita, akordeoia eta perkusio tresna laguntzaileak bezalako



soinu-tresna herrikoiei buruz dakitena azalduz, hitzaldi-kontzertu ugari eskaintzen dituzte. Gainera beraien elkarriketatutako makina bat gertakizun kontzertuetan dituzte, nekazal giroko tradizioaren eta hirietan gaur egun gertatzen ari den birfolklorizazio gertaeraren arteko lokailu bihurtuz.

Hain juxtu, beraien deiturak, Jambrina zamorar herritarra eta Madrid hiri kosmopolita, nekazal eta hiritar munduaren alegoria edo metafora moduan uler daitezke, tokikoa eta unibertsala, entzuleei erreperatorio eta giro honen azpian egonik helarazi nahi zaiena.

### EGITARUA:

01. Arbolito florido
02. La Pájara Pinta
03. Para la Habana y Pasacalles de danzantes
04. Manda enladrillar el Duero
05. Jotas y Brincaos alistanos
06. Habas de Don Genaro
07. Una palomita blanca
08. Yo me enamoré del aire
09. O pollo e a pulga
10. El virgo y la pajueta
11. Muñeira de Corporales y Vals del gaitero
12. Fox y Polca
13. A la sierra se marchó

Udaberriko kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoan

### AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



## HILERO TAILERRAK SOINUENEAN

Pasa den urtean kontzertu pedagogikoekin hasitako bideari jarraituz, urte berria haurrei zuzendutako eskaintza zabalduz hasi dugu.

Eguberrietan txalapartari buruzko tailer bat antolatu zen Soinuenean. Jendearen erantzuna ikusita tailerrek aurrera jarraitzea interesgarri izan daitekeela ikusi da. Gainera herri musikak haurtzaroko alde ezberdinekin ere badu harremana eta garai batean haurrek senide zaharagoengandik jolas moduan jasotzen zituzten ezagutza eta trebezi batzuk galtzear daudela ikusiz tailerrak beharrezko ere izan daitezke.

Txalapartari buruzko tailerrari hots jostailuei zuzendutakoek jarraitu diete. Hurbildu direnei txepetxa eta bere bariante batzuk egiten eta erabiltzen erakutsi zaie.

Hurrengoetan, hots jostailu gehiago egiteko aukera izateaz gain, musika entzun edota dantzatzeko aukera ere izango da, hilabeteko egitarauaren arabera.



Txepetxa egiten ikasten Soinuenearen aurrean. SNN



2012ko Hernaniko Txalaparta Festan. J.M. Uranga

## MAIATZEAN HERNANIN TXALAPARTA

Abestiak kukuak kantatzen du maiatzian kuku esaten badu ere, ez da hilabete horri lotzen zaion urteroko gertaera bakarra. Hernanin Txalaparta Festa izaten da eta aurtengoan 27. aldiz antolatu dute.

Maiatzaren 12an txalapartari historikoen etxeetatik pasako den ibilaldia izango da, maiatzaren 16an *Acercamiento a la tabla tañida y otros sonos* hitzaldia emango du Daniel Garcia de la Cuestak, maiatzaren 17an *Sagar Mekanikoa* txalaparta taldearen kontzertua eta Txalaparta Party Aparta izango dira eta maiatzaren 18an egun nagusia izango da eguerdian erromeria eta bazkari herrikoiarekin eta arratsaldean Txalaparta Jaialdi Nagusiarekin.

## KALITATEZKO ZERBITZUA

Lehenago urtean, Oarsoaldea Garapen Agentziak proposatuta, Soinuenea beretzat ordu arte neurri batean behintzat ezezaguna izan den ziurtagirien eskuratzeko bidean jarri zen. Izan ere, lan egiteko sistema on bat izanagatik kanpoko auditore batek ziurtatzen ez badu zalantzan jar daiteke sistema horren egokitasuna. Hori dela eta, turismoarekin lotura zuzena duen *Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin* ziurtagiria eskuratzeko pausuak abiatu zituen Soinueneak. Zentroak arlo ezberdinekin lotura du eta horietako bat da turismoa. Jatorri ezberdinak dituzten turistei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea bermatze aldera, aurretik ezarrita zegoen lan egiteko era dokumentatu eta estandarizatu egin da Oarsoaldea Garapen Agentziako teknikari baten laguntzarekin. Hainbat hilabete dokumentazio hori guztia prestatzen eman ondoren auditoria gainditu zuen Soinueneak eta otsailetik bere sarreran du zigilua. Orain arte izan den bezala, hemendik aurrera ere hobetzeko konpromisoa islatzen du ziurtagiri honek.



### BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 855

Antolatutako taldeak: 28

Bisitari kopurua apirila arte: 36074

### WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 12989

## SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org

